



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-01-27

VIII.URTEA 1.913.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Jangeletako begiraleek urtebetean zortzigarren greba egin dute

EKONOMIA ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deitu dituzte lanuzteak; grebak jarraipena edukiko du bihar

ESKAERA Jantokietako langileek euren lan baldintzak gainerako langileekin berdintzeko eskatzen dute 7



Ikaztegiatako eskolako haurrek ogitartekoak bazkaldu behar izan zituzten atzokoan. E.MAIZ



Atsaureek ikuskizun aparta eskaini zuten Ihoteen azken egunean. A.IMAZ

Eskean eta kalejiran amaitu dituzte aurtengo Ihoteak

LEITZA Lehenik haurrak eta gurasoak atera ziren kalejiran eta ondoren atsaureen txanda iritsi zens

Bideokamera bat zuen autoa plazan hilabetez egon dela salatu dute herritarrek

OREXA Pasan den hilaren 18a arte egon zen 4x4 autoa herrian; bizilagunek gogor salatu dute bizi izan duten poliziaren presentzia 6

OIHANE PEREZ EUSKADI IRRATIKO BERRIEMAILEA MADRILEN

«Bost auzipetuei sinesgarritasuna ematen ari zaie»

'EGUNKARIA AUZIA' Euskaldunon Egunkaria'ko epaiketaren berri ematen ari da anoetarra 2

E Elkarrizketa**OIHANE PEREZ** > Euskadi Irratiko berriemailea Madril

«Madrilen errugabetasun presuntziotik eginiko lerroburuak gailentzen ari dira»

'Egunkaria auzia'

Hiru urte daramatza Madril lanean Euskadi Irratiarentzat; egunotan, 'Egunkaria auzia' da bere gai nagusietako bat.

INIGO TERRADILLOS

2007ko urtarrilaz geroztik Madril (Espainia) gertatzen denaren berri ematen du egunero Euskadi Irratian Oihane Perezek (Anoeta, 1981). *Egunkaria auziko* saioa dagoenean Auzitegi Nazionala bihurtzen da bere lantoki. Epaiaketa honek «esanahi berezia» duela dio euskal egunkari bat ixteak «esan nahi duenarengatik», baina «antzeko beste hainbaten jarraipena egitean beste auzi baten moduan moduan hartzen duzu». Bestalde, Madrilgo komunikabideek auziaren inguruko jarraipen handia egiten ari direla dio, «baina garrantzitsuagoa da bertan errugabetasun presuntziotik egiten ari direla lerroburuak».

Zer da zuretzat 'Egunkaria auzia'?

Niretzat, gogorra dirudien arren, beste epaiketa bat da. Izan ere, illegalizazio prozesu ugari pasa ditut Madril, eta azkenean, egunerokotasun batekin hartzen dituzu. Hori bai, gaia oso garrantzitsua da, eta epaiaketaren eguna iristean konturatzen zara gaiak duen pisuaz, egunkari bat itxi baitute.

Nolako jarraipena du epaiaketak Madril? Zer nabarmenduko zenuke?

Bost auzipetuei nolabaiteko sinesgarritasuna ematen ari zaie hemengo komunikabideetan, eta hori nabarmenduko nuke. Sentsibilitate handiagoa edo azaltzen dute, agian egunkari bat itxi delako, eta agian baita ere fiskalak kasua artxibatze eskatu zuelako eta beraz, auzia hasieratik zalan-tzan jarri delako. *Egin* egunkariarekin gertatu zen bezala harri-duraz hartzen dute gaia asko.

Zein lurraldetako kazetariak jarraitzen dute gehien auzia?

Nazioarteko kazetariak ez daude auzia jarraitzen Auzitegi Nazionalan, Espainiakoak soilik. Herrialde Katalanetako kazetari asko dago, han jarraipen zabala egiten ari baitzaie *Egunkaria auzia*-ri. Bertako kazetariak ere harri-duraz hartu dute hango komunikabideetan epaiaketarekin loturiko albistei ematen ari zaien lekua.

Dena den epaiketa ulertzeko moduak zerikusia izango du lurralde batekoa edo bestekoa izatearekin.

HITZA

Bai. Espainiarrek, nire ustez, Auzitegi Nazionalako epaiketa berezi bat bezala ikusten dute, aipatu ditudan kontuengatik, hau da, egun-

«Bost auzipetuei sinesgarritasuna ematen ari zaie, auzia hasieratik zalan-tzan jarri delako»**«Madrilgo komunikabideek nahikoa jarraipen egiten ari direla esango nuke»**

kari bat itxi dutelako eta auzia zalan-tzan jarri delako. Euskaldunok, bestalde, tamalez, beste epaiketa bat gehiago bezala ikusten dugu, horrelako asko ikusi ditugulako. Hori bai, auzi honek bere berezita-

sunak ditu, egunkari bat delako, euskara dagoelako tartean, auzipetuek ezagunak direlako...

Zenbat kazetari jarraitzen dute 'Egunkaria auzia' Auzitegi Nazionalan?

Hasierako saioetan 20 kazetari inguru ginen, eta azken saioetan 15 bat. Komunikabideek nahiko jarraipen egiten dutela esango nuke. Dena den, egiten dioten lekuari baino nola jorratzen duten nabarmenduko nuke, izan ere, lerroburuak errugabetasun presuntziotik egingakoak izaten dira. Gainera, akusatuek agerraldi bat ere egin zuten, nolabait kezkatuz gaiari ematen zitzaion tartear eta errugabetasun presuntzioa aipatuz, eta ordutik ere aldaketa nabaritu dut komunikabideetan.

Nolako giroa egoten du Auzitegi Nazionalaren kanpoaldean?

Epaiaketa hasi zen egunean babes zabala jaso zutela auzipetuek ikusi nuen. Babes hori, batez ere, erakundeetako izan zen, eta hori hainbatentzat oso garrantzitsua izan daiteke. Bestela, gainerako saioetan ez da jende gehiegi gerturatu. Madril baino Euskal Herriaren elkartasun handiagoa ari dira jasotzen auzipetuek, antolatzen ari diren ekitaldien bidez. Gainera, agian zerikusia izan dezake auzia hain tartekatua izateak ere.

Gobernu aldaketak eraginik izan al du zure lan egiteko moduan?

Ezetz esango nuke. *Egunkaria auzia*-ri, esaterako, lehen ematen zitzaion leku berbera edo antzekoa ematen diogula egun uste dut. Gainera, Martxelo Otamendi berak personalki eskertu egin zion Euskadi Irratiko zuzendaritzari epai-ketari eman zaion trataera.

Gaur auziaren bosgarren saioa

Epaiaketa >> Defentsaren lekukoek deklaratu dute gaur; 'www.berria.info' webgunean egingo dute zuzeneko jarraipena.

ERREDAKZIOA

Gaur jarraituko du Madril, Espainiako Auzitegi Nazionalan, *Egunkaria auzia*. Bosgarren saioa da, eta defentsaren lekuko txanda izango da. Horiek amaitzean,

perituek hasiko dira. Berez, atzo jarraitu behar zuten epaiaketarekin, baina Javier Gomez Bermudez epaimahaiburuak asteleheneko saioa eteteke agindu zuen Antonio Parrero AVTko abokatuaren ama hil zelako. Parreroren ordezkioak atzo ezin zuela eta, gaur jarraitzeko erabakia hartu zuten. Baliteke akusazioak eta defentsak euren eskaerak otsailaren amaieran helaraztea epaimahaia.

Berria.info webgunean aurreko saioetan bezala zuzeneko jarrai-

pena egingo dute auziaren inguruan, 10:00etatik aurrera.

Bestalde, babes zabala jasotzen ari dira *Egunkaria*-ren aurkako bost auzipetuek Euskal Herriari nahi bertatik at, eta horren adierazle da antolatutako ekitaldiek izan duten parte-hartzea. Hurrengo ekitaldia Miarrizten izango da; bertan, *Egunkaria*-ren aldeko *Gaualdia* antolatutako datorren larunbaterako, otsailaren 6rako. Gaztetxean izango da —La Negrese auzoan— 18:00etatik aurrera.

L Laburrak**Haitirako laguntza bidaliko du Tolosako Udalak**

GIZARTEA > Haitin gertatu den hondamendia dela-eta laguntza eman asmoz, «eta solidaritate deia luzatzeko helburuz», 6.000 euroko diru laguntza luzatzea erabaki du Tolosako Udalak. Gipuzkoako Karitasen bidez bideratuko dute laguntza hori. Udalak esan bezala, «Hirugarren Mundura beste hainbat ekintza solidario bultzatuz jarraituko dugu Osasun eta Gizarte Zerbitzuetatik, orain arte egin dugun moduan». Era berean, Udalak ekarpenak egiteko kontu korronte zenbaki bat zabaldu du 21010067290012555470 (Tolosako Udal-Elkartasun kanpaina).

Tolosa Kantariren entsegua, Musika Eskolan

KULTURA > Tolosa Kantariren entsegua egingo dute gaur, 20:00etatik aurrera, Tolosako Musika Eskolan. Besteak beste, Inauterietako eta Santa Ageda bezperako kantuek abestuko dituzte, eta parte hartu nahi duen orontzat atek irekita egongo dira. Bestalde, Tolosa Kantari kantui jira larunbat honetan izango da.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.	
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212	
Anoeta-Alkiza-Herrialde.	
Medikua: 943 65 23 39	
Asteasu. Medikua: 943 692423	
Baliarrain. Medikua: 943 889003	
Berastegi-Elduain.	
Medikua: 943 683361	
Bidegoian. Medikua: 943 681134	
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411	
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329	
Irura. Osasun zentroa: 943 690720	
Leizta. Osasun z.: 948 510800	
Orendain. Medikua: 943 655595	
Orexa. Medikua: 943 682228	
Tolosa.	
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111	
San Esteban: 943 006800	
Gernikako arbol: 943 006900	
Amarozko dispen: 943 672637	
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdia)	
DYA: 943 672536	
Gurutze Gorria: 943 674888	
Villabona. Anbulat.: 943 006970	
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930	
GARRAIOAK.	
Renfe: 902 24 02 02	
Donostiako autobusa: 943 361740	
Tolosalde bus: 943 650621	
Leitzaran autob.: 948 221015	
Taxi: 943 670420	
Taxi (Leizta): 608 873016	
BESTERIK.	
Ertzaintza: 943 538820	
Tolosa-Udalaitzainoa: 943 675858	
Tolargi: 943 650016	
Iurramendi egoitza: 943 670325	
Tolosa gasa: 943 675320	
Alkoholiko anonimoak: 943 248474	

Partaidetza jardunaldietatik Udal Kontseiluaren Arautegira

Gizartea » Abenduan gai honen inguruko hiru saio izan ziren eta hortik ateratako ondorioak plazaratu ditu Arrietak.

ERREDAKZIOA

Udalak joan den abenduan antolatu zituen partaidetzaren inguruko jardunaldi batzuk eta orain hauen inguruko hausnarketaren txanda da, Elisabet Arrietak, EHU'n Soziologian doktoratua denak, egin duena, hain zuzen.

Saio hauetan, parte-hartzearen inguruan estatu mailan garatu diren edukia eta hausnarketak aurkeztu ziren. Hortik abiatuta, Arrietak ateratako ondorioetan, hauxe nabarmetzen da: «jardunaldi hauek erronka nagusi batetara garamatza, Tolosan herritarrek eta Udalak beharrezkoa dutela Herriarren Partaidetzarako Udal Kontseiluaren Arautegia». Dagoeneko, araudi horren zirriborroak egin du ibilbide bat, baina jardunaldietan honen inguruko gaiak ere azaldu ziren.

Arrietak egindako txostenean irakurri daitekeenez, abenduan egindako hiru saioetan zenbaitek zalantzan jarri zuten Udal Kontseiluaren Arautegia bera. Horre-



Elisabet Arrieta aditua arduratu da ondorioak ateratzeko. E. MAIZ

tarako, bi argudio erabili omen zituzten. Alde batetik, «araudia bera egiteko modu ezegokia», hau da, bere parte-hartzearen ibilbide eskasa. Bestetik, «arautegia bera, parte-hartzea murriztu» baitezake.

Herritarren iritzi eta ekarpenak

Egindako saioetan hamahiru herritarrek eman zituzten euren iritziak. Hala, arautegiak kontuan eduki beharko litzuzkeen bitartekoen eta jaso beharko liratekeen ezinbesteko aipamenez hitz egitean, ondorengoak esan zituzten herritarrek: «Ezinbestekotzat jotzen dut atariko bat, non iruzurrik egin gabe adieraziko den zein gizarte parte-hartzeren eredu ezarri

nahi den». «Ez da araudi bat prestatzeko unea, lehenik parte-hartzea nola ulertzen dugun ikusi beharko genuke eta hitz egiteko arauak finkatu eta adostu, parte-hartzea oso modu ezberdinean ulertu baitaiteke», esan zuen beste batek. «Parte-hartzearen mugak ezarri behar dira» eta «araudiak bere eboluzioa eta malgutasuna onartu beharko luke ahal den hiritar gehienak errespetatzeko», aipatu zuten beste bi pertsonak.

Araudian agertu behar ez lukeen elementuak ere aipatu zituzten parte-hartzaileek. Besteak beste, hauek izendatu zituzten: «Parte-hartzea lan tresna bezala ez dadilagai batzuetatik algetiditu: gai guztiak izan daitezela eztabaida-

garri nahiz eta ez beti burutu»; «erakundearen lidergotzak ez ditu jarraibideak adierazi behar»; eta «politikaren ikuspegi gehiegizkoa da. Politika gutxiago eta herritarren parte-hartze handiagoa nahi dut». Azkenik, zenbait iradokizun ere egin zituzten jardunaldietara bertaratu zirenek.

Hiru sail, hiru ikuspuntu

Joan den abenduan egindako jardunaldien helburu nagusia, «guztien prestakuntza» bultzatzea izan zen eta saio horiek hiru ikuspegi ezberdin erakutsi zituzten.

Alde batetik, aipatu prestakuntza landu zuten, baina aipatu komuna kontuan hartuta. Teoriarren ingurukoa izan zen, zehazki, eta guztiek oinarriko elementu batzuk ezagutu behar izan zituzten aipatu berdina izan zezaten.

Bigarren helburuztat, bai heimen eta baita beste toki batzuetan ere, egiten denetik abiatuta neurri batean baliozkoak izan daitezkeen erreferente edo gakoak eskuratzea izan zen.

Bukatzeo edukia, esperientzia, informazioa eta hausnarketa bezalako gaiak jorratu zituzten, baina hortik aurrera beste pausu batzuk eman nahi dituzte araudiaren inguruan.

Laburrak

Asis Sarearen otoiizaldi bilkura izango da bihar

GIZARTEA » Bihar, Asis Sarearen otoiizaldi bilkura egingo da, Klari-sen komentuan, 19:30ean. Dagoeneko 1.600 lagun baino gehiago biltzen dituen Asis Sarearen helburua irekitzea da eta horrenbestez herrietara, taldeengana eta pertsonengana zabaltzen jarraitzea.

Dibortzioaren inguruko kontuak mintzagai, bihar

GIZARTEA » AGIPASEK, Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarteak, hitzaldi bat antolatu du bihar arratsalderako. *Kaltegarria ez den dibortzio baterako pausoak* izenburupean, 18:00etan izango da ekitaldia Kultur Etxean. Bertan, gai legalek, guraso eta seme-alaben arteko erlazioez hitz egingo da besteak beste.

'Vivre la vie' lana ikusgai izango da bihar Leidorren

KULTURA » Bihar, Zine Forumean, Jean-Luc Godard zuzendariaren *Vivre la vie* (Bere bizitza bizi) lana ikusgai izango da, jatorrizko bertsoan. Frantziar egindako drama honetan, prostituzioan lan egiten amaitzen duen neska gazte baten bizitza eta bere eboluzioa kontatzen da. Lehendabiziko saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean.

Gutunak

Pello Odriozola, 22 urte borrokan eta erresistentzian

Bihar, hilak 28, Pello Odriozola tolosarrak 22 urte beteko ditu Espainiako ziegatan. Une honetan, Pello eta berekin batera Euskal Preso Politikoen Kolektiboa osatzen duten beste 749 kideak borrokaldiri batean murgilduta daude.

Espainiako eta Frantziako gobernuak abian duten errepresio estrategiaren bidez muturrera eramanez, Euskal preso politikoen jazarpena eta presio izugarriaren jomuga dira. Sakabanaketa politikak indarrean dirau, eta bisitetarako joan etorritan egin beharreko milaka kilometroko istripuak eragiten jarraitzen dute.

Minbizia edo eskizofrenia bezalako eritasunak dituzten euskal preso politikoen espetxean preso mantentzen dituzte, heriotza zigorraren marrara eramanez herritar hauek. Igor Gonzalez bere buruaz beste egiten saiatu da bigarren aldiz, eta Juanjo Rego Vidalek, bihotzekoak izan du orain gutxi.

Kondena bete duten preso politikoen espetxean mantentzen di-

nutze Pelloren kasua bezala, praktikan biziarteko espetxe zigorra legezatu dutelarik.

Egoera honez gain isolamendua, bakartzea, lekualdatzeetan emandako jipoiak eta egunerokotasunean ematen diren eskubide urraketak pairatu behar dituzte euskal preso politikoen.

Senideen aurkako jazarpena ere areagotzen ari dira. Ondorioz, aurrez aurreko bisitetara sartu ahal izateko jasan behar dituzten miaketek uko egin ondoren senide eta preso asko bisitak galtzen ari dira asteotan.

Presoiei izaera politikoa ukatzen dieten bitartean beraien aurka hartzen ari diren muturreko neurriek agerian uzten dute ukatua zaien izaera politikoa bera. Euskal Preso Politikoen Kolektiboa ezabatu nahi dute, horretarako presoak pertsona bezala suntsitzeko ahaleginetan dabiltzalarik.

Egoera anker honen aurrean borrokaldirian aurkitzen dira euskal preso politikoen. Hilabete honetan, eta datozenetan ere buruturrun aldiz, eta Juanjo Rego Vidalek, bihotzekoak izan du orain gutxi.

neurria eraikitako Guantanamo erraldoiari.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboa aurrera daraman borroka honen aldarrikapen nagusiak hauek dira. Alde batetik, gaixo larriak diren kide guztiak berehala kaleratuak izan daitezkeen exijitzen dute. Heriotzaren korridoretik atera ditzatela. Haietako dakieken kalte atzerazinen erantzukizun osoa Espainiako gobernuarena izango da.

Bestetik, bere unean tribunal arrotzek ezarritako zigorrak aise beteta dituzten kideak, Pello kasu, berehala kaleratuak izan daitezkeen exijitzen dute. Honez gain, baldintzapeko askatasunean kaleratuak izateko bere unean tribunal arrotzek ezarritako zigorraren denbo-

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Katea.** Amezetako Zazpi-itturri inguruan urrezko katea bilatu da. J. Z. inzialekin. Hau geldu duenak deitu dezala ondorengo telefono zenbakira: 678.47.66.16.

ra aisa gaingiduta duten kideak berehala kaleratuak izan daitezkeen exijitzen dute.

Euskal preso politikoen borrokan dira espetxeetan eta kalean ere mobilizazioek ez dute etenik izango. Zentzu honetan, Amnistiaren Aldeko Mugimendutik dei bat luzatu nahi dugu herri eta auzoetan burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko.

Honenbestez, erlojuaren kontrako borroka honetan konpromiso sendoak hartu eta herritarren indarrez euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko ahalegin guz-

tiak antolatzea ezinbestekoa da. Eta horretarako aste honetan bi hitzordu ditugu, Pello Odriozola eta presoek kolektiboaren eskubideen alde burutuko ditugun mobilizazioekin, etzi, hilak 29, hilabeteko azken ostirala izanik, 19:30ean Triangulon egingo dugun elkarretaratzearrekin eta igandean, hilak 31, Pelloren askatasuna exijituz burutuko dugun manifestazioarekin Triangulotik abiatuta 19:30ean ere.

Mikel Zabala. Tolosako Amnistiaren Aldeko Mugimendua izenean

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«Herrietan borrokan jarraitzeko» deia egin du AHT Gelditu!-k

Azpiegiturak » Otsailaren 6an Tolosan egingo duten manifestazioan parte hartzeko gonbita luzatu diete herritarrei.

ERREDAKZIOA

AHT Gelditu! Elkarlanak otsailaren 6an 17:00etan Tolosako Triangulo plazatik abiatuko den manifestazioa joateko deia egin du. Honekin batera, «herri guztietan borrokan jarraitzeko» eskaera ere luzatu du.

Elkarlanak «AHTren lanak bertan behera uzteko exijentzia berresten du eta larunbeteko manifestazio arrakastatsua proiektu txikitzaile eta xahutzaile hau gelditzeko asmoz jardun, informatu eta mobilizatzen jarraitzeko pizgarri izan behar duela» adierazi du. Izan ere, pasa den larunbatean 20.000 bat pertsona inguruk hartu zuen parte Hendaia eta Irun artean egindako manifestazioan, «Euskal Herrian AHTren aurka egin den manifestazio jendetsuen».

Gogoratu behar da eskualdean Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu, Zizurkil eta Aduna herriek jasoko dutela Abiadura Handiko Trenaren era-



Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egin zuten agerraldia. HITZA

gina, 19 kilometrotan zehar. Hauek 13 kilometro tunelak izango dira: Adunatik Belkaingo tunela, Anoeta eta Zizurkil artean, Montezkue, Aldaba Txiki eta Hernialde zeharkatzen dituzten 1,5 km-ko tunelak, kilometro bat inguruko Langaurreko tunela Alegian eta Urkamendikoa, Zizurkil.

«AHTrekiko aurkakotasuna indartzen ari da»

Bestalde, AHT Gelditu! Elkarlanak larunbatean «estatu frantziar, espainiar eta italiarrean Abiadura Handiko linea berrien eraikuntzen aurka diharduten hamarnaka mugimendu eta elkartek Hendaian» sinatutako Adierazpen Komuna ezagutarazi nahi du. Idatzia

«mugimendu guztien arteko lan-kidetzaren agiri sortzailea dugu eta helburugisa gure indarrak batu eta gure aldarrikapenak altuago entzutea ditu».

Era berean, Aramaioko (Araba) alkateari babesa agertu dio elkarlanak: «Otsailaren 10ean, Gasteizen, Aramaioko alkate Asier Agirrerren aurka egin nahi duten epaiketa salatu nahi du. Alkateari egozten dizkioten delituak prebarikazioa eta desobediencia dira. Hitz-potoloak beren herritik pasatuko den AHTren inguruan herritarren artean galdeketa egiteagatik dela kontuan hartzen badugu. Udalak herritarren iritzia jakiteko galdera argia besterik ez zien egin: Ados al zaude AHTren proiektuarekin?».

Otsailaren 1etik 5era eman daiteke izena Mozorro Lehiaketan

Tolosa » Iaz Haur Jaialdiko sarrerekin izandako arazoak ekiditeko aurtengoan ezingo da izena egunean bertan eman.

aurretik eman behar dute izena eta ez egunean bertan, lehen bezala. Parte hartu nahi dutenek, hortaz, Aiz Orratz Elkartera jo behar dute otsailaren 1etik 5era, 18:00etatik 20:00etara.

ERREDAKZIOA

Tolosako Inauteriak geroz eta gertuago daude eta herriko elkarte eta taldeguztiak lanean dirajada, baita Aiz Orratzekoak ere. Elkartean Haur Jaialdia antolatzen du urtero eta aurtengoan aldaketa bat egitea adostu dute iaz jaialdiko sarrerekin izandako arazoak ekiditeko.

Aurtun otsailaren 6an ospatuko dute Mozorro Lehiaketa eta bertan parte hartu nahi dutenek alde

Betiko arazo: leku mugatua

Aiz Orratz Elkartek urteak darमतza Haur Jaialdia antolatzen eta «Tolosako familia guztiak zuen parte hartzea eskertzen dizuegu», baina bada beti errepikatzen den arazo bat: leku mugatua.

«Hori dela eta, gogoratzten dizuegu zenbat eta heldu gehiago agertu, gero eta ume gehiago gertzen direla kanpoan. Ez dago guztientzako lekurik», argitu dute elkarte kideek.



Iaz arazo ugari izan zituzten jaialdira sartzeko sarrerekin. I. TERRADILLOS



harpidedun izateak badu saria

① Afaria

Tolosako ISASTEGI
sagardotegian
2 pertsonentzako
afaria



Aldaba txiki, 15 A
943 652 964
TOLOSA

② Antzerkirako sarrerak

XABINEITOR

antzezlanerako 2 sarrera pare

Otsailak 5 ostirala
20:30ean • Tolosako Leidor-en



③ Diskoa

Elkar etxeak eskeinia
Xabier San Sebastian-en
"Ospela" azken diskoaren 4 ale



④ Liburua

Elkar etxeak eskeinia
Rai Bueno era Iratz Inziartek
egindako "Fatima"
haur liburuaren 4 ale



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Atsaureen kolorea eta eskelarien umorea

Leitza » Amaitu dira aurtengo lhoteak. Azken eguna eskean eta kalejiran igaro zuten eta atsaureek ikuskizun aparta eskaini zuten.

ASIER IMAZ

Amaitu dira 2010eko Leitzako lhoteak. Kalea eta baserria uztartzen dituzten benetako jai herrikoiak. Orain balantzea egiteko garaia heldu da, hori bai, merezitako atsedenaldia hartu ondoren.

Arratsalde koloretsua

Haize fin bezain hotz baten lagun-taz ospatu zituzten 2010eko lhoteetako azken ekitaldiak. Lehenik, haurrak eta gurasoak irten ziren kalejirara, irudimenaz jantzirik. Herriari itzulida eman ostean, plazara joan ziren agudo, txokolate beroaren bila. Erreleboa orduan, atsaureek hartu zuten. Guztira 25

lagun inguru atsauretu ziren, usadioak esaten duena oinarri hartuta. Benetan ikusgarria. Inork ezagutzen ez zituela, jaiarekin bat egin zuten eta korrika saio ugari bota behar izan zituzten haurren isekak isildu nahian.

Iluntzean Torreara joan zen festa, bertan egin baitzen barrikotea. Azken ekitaldia berriz Ateketeltz gaztetxean burutu zen, The Spar-teens taldearen kontzertua horren lekuko.

«Lur Santuan» eskean

Erasote auzoari «Lur Santua» ere deitzen omen diote. Bertara joan ziren atzo goizean 30 bat lagun eskera. Giro bikaina sortu zuten.



Hoteetako azken egunean haurrak eta atsaureek kalejira egin zuten herrian barna. ASIER IMAZ



«Lagun giroan ibiltzen gara»

'Soro'

Puska biltzen 33-35 urte daramatza Sorok. Denbora horretan behin bakarrik huts egin du; «soldaduska egiten ari nintzen eta ezin izan nuen etorri; oso gaizki pasatu nuen». Atzo berriz gozatzen ari zen leitzarra, horretarako arrazoi ugari zituen: «Eskean lagun giroan ibiltzen gara; barre pixka bat eginaz, kantu zaharrak abestuaz... baserrietan berriz nahiko edana eta jana izaten dugu, mahaiaik beterik egoten baitira. Hori bai, Erasote auzoan gaudenez beti kafearekin bukatzen dugu». Eta hori zergatik izan ohi da? «Erasoteri Lur Santua deitzen diote eta hemen otordu guztiak beti kafearekin bukatzen dira».



«13 urterekin hasi nintzen»

Jabier Eskubi

Paristik omen datorren leitzarartista honek 50 urte daramatza txantxak egiten. 13 urterekin hasi zen Inauterietan puska biltzen. Lehen, lhoteak herrian ospatzen ez ziren garaietan, baserrietako eskeak egiten zutelara aipatzen du: «Gauzak asko aldatu dira baina beti hobereko; mahaiaik beteta egoten dira orain eta jende gehiago ibiltzen gara baserri-baserri. Ardoa beti ona izan da, hori bai, lehen zatoan izaten zen».

Leitzako Atsaureen inguruan galdetuta, auzotarrak aipatzen ditu: «Errekakoak etortzen ziren horrela, aurpegia estalita, hori bai, motorrak berotuta ekartzen zituzten».



«Baserritarrentzat ere polita da»

'Joantzar'

Taldeko «artifiziero ofiziala» da Joantzar. 30 urte daramatza Inauterietan ezagutzen: «Niretzat urteko egunik hobereko da. Beti bulegoko lana eduki ohi dut eta inguru honetara horrela ibiltzea liberazio moduko bat da. Guretzat gozamena baldin bada, baserritarrentzat ere garrantzitsua dela uste dut. Poz handia hartzen dute. Guk beti eskertzen diegu egiten duten ahalegina eta hori beraientzat ere oso polita izaten da».

Joantzar-ek suziarik eramaten ditu eskuetan, eta baserrira iritsi baino lehen bi edo hiru pizten ditu. Baserrietik ateratzean, hurrengoak jakinarekin gainean jartzeko, beste pare bat pizten ditu.



«Pozgarria izaten da»

Zabaleta familia

Tutene baserriko lau belaunaldiak

Atearen beste aldean baserritarrek egoten dira. Hauek eskelariak eltzarako dena txukun edukitzen dute: «Goizean hasten zara ha-maiketako prestatzen. Gero suzi iristear daudela eta orduan mahai gainean jartzen duzu dena. Ondoren urduritasuna dator» onartzen du Mamenek. Etxera sartzen direnean berriz, «ilusio handia ematen du; horrela, baserrietan bizi gare-nok ere Inauteriak bizitzeko aukera izaten dugu».

Mamen-en ama Lurdes da eta alabarekin bat dator: «Herri-tik hona jendea etortzea oso pozgarria da. Txikitatik ezagutzen dut

ohitura hau eta nire aita zena etortzen zait gogora: ilusio handia egiten zion berari. Baserrian mandio handi bat daukagu eta berak kontatzen zigun ingurutxo bertan nola dantzaten zuten, buelta guztiak hartuta. Nik hori ez nuen ezagutu».

Gaur egun kantuan ibiltzen dira mahaiairen inguruan. Ondoren, txistulariek pieza bat jotzen dute eta dantzako gogoa duenak oinak mugitzen ditu, etxeok barne. Baserrian bizi direnentzat hau guztia oso polita izaten da Lurdesek onartzen duen bezala. Horretaz gain, jende berria ezagutzeko modu polita izan ohi da, askok lanagatik kalera jaisteko aukera handirik ez baitute izaten.

Romeo: «Emitza positiboa dela kalean frogatu daiteke»

Ibarra » TAOren lehen hilabetea igarotzean da eta Udalak balorazioa egin du; hainbat zehaztapen ere egin ditu erabiltzaileentzat.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak TAO sistema aplikatzen hasi denetik hilabete bete ez denean, erabileraren hainbat zehaztapen eman nahi dizkie herrikideei.

Hala, TAO eremuan bizi ez diren bizilagun guztiei erregulatuta dauden kaleetako batean aparkatzen badute txartela erosi eta autoan begi-bistan jarri beharko dutela gogorarazi die. Hala ere, «ibarrarrek 2 orduz eremu urdinean dohainik aparkatu ahal izango dute», adierazten dute Udaletik.

TAO sistemaren araudira gehituko diren hainbat neurri ere onartuko ditu bere funtzionamendua hobetze aldera eta herritarren eskaeri erantzuteko. Horrela, «Euskal Herria kaleko 28. zembakiko bizilagunengana zabalduko dugu».

Furgoneta eta ibilgailu mistoentzat ere aukera

Bestalde, Udalak, 3.000 kilo bitarteko tara duten furgoneta eta ibilgailu mistoiei bertakoentzako aparkaleku txartela eskuratzeko aukera emango die, «arazoa udalerriko beste eremu batzuetara bideratzea ekiditeko». Zama lanak burutzeko ordubeteko epea izango dute aparkatutako ibilgailuek, 08:00ak eta 14:00ak bitartean, xede horretarako egokitu dauden eremu ezberdinetan.

Txelo Romeo Ibarrako alkateak azaldu duenez, «neurri hauek guztiek ibartar guztiei aparkalekua errazteko helburua» dute eta «sistema honek sortu ditzakeen zailtasunak ahalik eta neurri handiengan murriztea». Halaber berrikuntza hauek bizilagunetako batzuk egin dizkieten planteamenduei erantzunez egingo dituztela azaldu du Romeok, «etorkizunean sor daitezkeen egoerei aurrea hartuz». Romeok lehen egun hauen balorazioa egin du: «Emitzak oso positiboak izan dira eta gainera kalean bertan frogatu daitezke». Alkateak argi utzi du sistema honek ez



TAO eremu urdina Ibarran. N. LATABURU

duela «dirua biltzeko xederik». Sistema Ibarrak «pairatzen zuten aparkaleku azaro larria konponatzeko onartu zen, eta poliki-poliki, betetzen ari dela ikusten ari gara», gaineratu du. Lehentasuna Ibarrako bizilagunek eta langileek dutela ere aipatu du Romeok: «hauek aparkatzeko toki bat eduki dezaten bermatu nahi dugu, beste udalerrri batzuetatik datozenek ordaindu beharko dutelarik».

Azkenik, datozen egunotan TAO eremuan bizi diren eta bertakoentzako aparkatzeko eskatu duten pertsonak txartela jasoko dutela zehaztu dute Udaletik.

Bideokamera zuen autoa hilabetez plazan egon dela salatu dute

Orexa » Bizilagun batek auto berbera zuela eta hasieran bizilagunak ez ziren jabetu plazan zegoen autoaren presentzia.

ERREDAKZIOA

Herriko plazan aparkatuta zegoen auto baten barruan bideokamera bat ezkatututa zegoela salatu dute Orexako bizilagunak.

Aipatutako autoa hilaren 18ra arte egon zen plazan geldirik eta hilabete inguru egin zuen bertan.

Herritarrek hasieran ez ziren jabetu

Bizilagunak ez ziren horretaz jabetu hasiera batean, herrikide baten auto berbera duelako, 4x4 autoa, hain zuzen ere. Gainera, bizilagun honek plazan aparkatu ohi du bere autoa.

Hala eta guztiz ere, egun batzuk igarota, plazatik igaro zen bizilagun batek ustez poliziari jarritako bideokamera bat auto barruan ze-

goela atzeman zuen. Aurkikuntza honen harira, jarraipena egin zioten autoari eta bere barruan gizonak ezezagun bat zegoela ikusi zuten ondoren; halaber, goizero bi lagun plazara heltzen zirela ikusi zuten; bi horietariko bat autoan sartu eta mendi-bide baten behera joaten zen.

Bertan, ustez, grabazioak bilatzen zituzten.

Hilaren 15ean, txikizkoak autoan

Pasa den hilaren 15ean, berriz, autoan hainbat txikizko egin zituzten. Gurpilak zulatu zizkieten eta lehoak ere apurtu zizkieten, azkenean bideokamera agerian geratu zelarik.

Bizilagunak azaldu bezala, txikizkoaren hurrengo egunetan herritarrez jantzitako polizia ugari gerturatu zen herri ingurura, pasa den hilaren 18an garabi batek aipatu 4x4 autoa plazatik eraman zuen arte.

Honen bestez, Orexako bizilagunek poliziaren presentzia gogor salatu nahi izan dute.

Hilberria

MARIA TERESA AZKUNE SEGUOLA

Atzo hil zen, Azepeitan, 53 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Bere senarra: Jose Luis Odozola Gurrubaga; alabak: Amaia eta Olatz; ama: Lucia (Ignacio Azkunen alarguna); ezkon-gurasoak: Manuel (1) eta Jose Antonio (2); anai-arrebak: Pedro eta M^ñ Jesus, Agustin, Jose Ignacio eta Maribel; Arantza, Jabier eta Arantza; Xanti eta M^ñ Luis; koinatu-koinatak: M^ñ Jesus eta Jero, Rosario eta Esteban, Jabier eta Maite, Pedro eta M^ñ Karmen, Margarita eta Juan; ilobak, lehengusak eta gainerako ahaidedek.

Haren animaren alde olotz bat eskatzen dizutele eta arren etor zaitzetez LAUR, esteatzena, arratsaldeko 19:30ean, Soresuko Sebastian Deurenan parrokielizan, gorpuzta bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Urbegain Baseria (Izarritz, auzoa)
OHARRA: Hilberria Azepeitiko Carmona Ehorzetxean egongo da



AZEPEITA
2010eko
urtarrilaren 27a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

JOXAN CARRERA MAKAZAGA

Bizitzak ez du amore ematen inon inola aurrera egin gogo du atsedean gabe zoraturik neurrik ez baitu. Bizitzak ez du etsitzen ezpada muga latzetan ezpada egiten ametis oihanarekin egiten du deserturakin.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik



ORIO
2010eko
urtarrilaren 27a

Beñaten lagunak

JOXAN CARRERA MAKAZAGA

Zer da bizitza? mila azterketa jartzen dizkigun karrera; nola gaingitu lagun artean egunero ikasten da. Ikasi dugu aita ikusten bata zuri az gainera... bizitza koaz eta emandakoaz beti oroituiko gera.

Beñaten lagunak

ORIO
2010eko
urtarrilaren 27a

MARI TERE AZKUNE SEGUOLA

Bere senarra Joxe Luix eta alaba Amaiairen lankideak, bat egiten dugu zuen saminarekin.



AZEPEITA
2010eko
urtarrilaren 27a

Kimu bat-eko lankideak

JOSE LUIS HUESA ARBIZU

(Felisa Otegiren alarguna)

—Goian bego—

Kaiko Jose Luis mendizale eta dantzari langile sendoa eta ibiltari lau gurpileko gurdiaren gidari gora eta bera ezker eta eskubi herriz herri urtez urte ibili zera Euskal herrin elikagai garbiak eta sendoak eramanaz denari ez baitzegoen zuk ezagutu gabeko dendaririk egin beharrekoak bikain eginda eta oso nekaturik zazpi seme-alabaren aitari betirako hartu ezazu atsedena eta ohorea zuri, Jose Luis!!!

Otegi Otegi sendiak



ORDIZIA
2010eko
urtarrilaren 27a

JOSE LUIS HUESA ARBIZU

(Felisa Otegiren alarguna)

Herenegun hil zen, 79 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Seme-alabak: Edurne eta Antonio Aierbe, Imanol eta Rosa Mujika, Pello eta M^ñ Sol Santesteban, Ima eta Roger Haberli, Maribel eta Triki, Irigoi eta Rosa Fincias, Miren Koro eta Peio Olano; bilobak: Nora, Oihane, Ibai, Julia, Isabel, Ana, Uxue, Haizea, Mireia, Intza, Naia; ezkon anai-arrebak: Maria (1), Imanol eta Nekane Apaolaza, Maribel eta Juan Cuesta; ilobak, lehengusak eta gainerako ahaidedek.

Haren animaren alde olotz bat eskatzen dizutele eta arren etor zaitzetez LAUR, asteazkena, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI parrokielizan gorpua aurrean dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Nafarroa etorbidea 2, 4 A
OHARRA: gorpua Beasaingo Goierni beilatokian egongo da. 2010eko urtarrilaren 27a



ORDIZIA

Larunbatean Herri Batzarra udaletxean

Anoeta » Herritar guztiak deituak daude eta egoera ekonomikoa, finantziarioa, aurrekontuak eta egitasmoak jorratuko dira.

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzalearen Udal Taldeak, hilaren 30erako, larunbata, Herri Batzarra deitu du. Udaletxean izango da eta 11:00etan elkartuko dira gai ezberdinak jorratzeko.

Herri Batzarrean, udal taldeak besteak beste herritarrei, 2010eko egitasmo eta aurrekontuen proposamena aurkeztuko diete. Helburua, guztien artean eztabaidatu eta

herriak dituen beharrei egokien erantzuten dizkien erabakiak hartzea izango da.

Informazioa jaso eta zure iritzia emateko aukera

Herritar guztiak izango dute lekua eta guztiak gonbidatuak daude bertara. Zehazki jorratuko diren gaiak honakoak dira: lehenengo gaur egun Udalak duen egoera ekonomikoa aurkeztuko dute. Ondoren, Udal finantziarioa izango da eta bukatzeko 2010. urterako dituzten egitasmo eta aurrekontuak izango dira eztabaidagai.

Udalaren inguruko informazio zuzena jasotzeko aukera izango da eta era berean, bakoitzak bere iritzia emateko baliatu dezake.

'Tortibia de Bacalao' Madridfusionean

Zizurkil » Abeletxe Jatetxeak sukaldaria den Jose Luis Garcia Madridfusioneko sei finalisten artean dago.

ERREDAKZIOA

Gaur ospatuko den Madridfusione Sukaldaritzaren Internazionalako Kongresuan, Jose Luis Garcia, Zizurkilgo Abeletxe Jatetxearen sukaldaria, Gipuzkoa ordezkatzu izango da.

Tapas y pintxos de diseño kongresuan parte hartu duten sei finalisten artean dago legazpiarra. Bertan *Tortibia de bacalao* deitu duen pintxoarekin parte hartuko du.

Sagardotegiak omendu nahi izan ditu

Sukaldariak pintxo honekin, sagardotegiei omenaldi txiki bat egin nahi izan die. Arrautzarik gabetortilla bat egitea ezinezkoa dela eta, hortik abiatuz, tortillari arrautza forma eman dio. Benetako arrautza batetik bereiztea zaila den arrautza-oskola da, baina guztia jangarriarrioso.

Barruan, bakailao tortilla zaporea duen arrautza muketa du. Zurringoa, bakailaorekin egina eta gorringoa, erdia ajoartieroa eta beste erdia, gorringoaz egina du eta arrautza, ogiarekin eginiko habian dago. Xehetasunik ere ez du falta, kode zenbakia eta iraingitze data txipiroi tintaz idatziak ditu eta.

Laburrak

Podologoa eta asanblada orokorra Alkartasunan

ANOETA » Alkartasuna elkartearen gaur, lehenik eta behin, 15:00etatik aurrera, Nagore Franco Podologoa hileroko bere zerbitzua eskainiko du. 18:00etatik aurrera berriz, urteko asanblada orokorra egingo dute eta bertan hiru puntu hauek jorratuko dituzte: lehenengo balantze ekonomikoa aurkeztuko dute, jarraian, junta berritza egingo dute eta hirugarren puntuan, lehendakariaren kargu-uztea jorratuko dute. Azkenik galdera eta erreguak egiteko aukera ere izango da. Elkarteko kideek bazkide guztiei bertaratzeko eta parte hartzeko deia egin nahi diete.

Loatzokoak kalera aterako dira kaldereroetan

LOATZO » Otsailaren Sean kaldereroak ospatuz, Loatzoko musikariak herri ezberdinetan kalera aterako dira. Anoetan, 18:00etan Loatzoko musika eskolako ikasleen banda Plazatik aterako da. Entsegu orokorra, hilaren 28an 18:30ean ikastolan egingo dute. Iruraren kasuan, 18:00etan Musika Eskolatik aterako dira eta Bonberenea txaranga eta Loatzoko ikasleak izango dira. Entsegu orokorra, hilaren 28an 18:30ean izango dute Musika Eskolan. Ibarra aldiz, 18:00etan Plazatik aterako dira eta Pasaia txaranga joko du. Entsegu orokorra, otsailaren lehen, 18:15ean ikastolan egingo dute.



Samaniego ikastetxean, ikasle guztiak etxera joan behar izan zuten bazkaltzera. ESTI EZEIZA

Beste behin ere jangeletako begiraleak greban

Ekonomia » Urtebetean zortzigarren greba eguna dute; LAB, ELA, CCOO eta UGT-k deitu dute eta bihar berriz ere greba izango da.

ERREDAKZIOA

Atzo greba eguna izan zuten eta bihar ere greba eguna izango da eskoletako jangeletan. Gure eskualdeko eskola txiki nahiz handietan eragina du eta hainbat haurrek atzokoan etxerako bidea egin behar izan zuten bazkaltzeko. Beste askok, ogitarteko batekin bazkaldu behar izan zuten.

Azken greba, duela bi hilabete egin zuten gutxi gorabehera eta urtebetean egiten duten zortzigarren greba eguna izan zen atzokoa. LAB, ELA, CCOO eta UGTk deitu-

tako protestak dira hauek eta lan baldintzak gainerako langileekin berdintzeko eskakizuna dute.

Protesta horren bidez, Eusko Jaurilaritza eta patronala, hitzarmen kolektiboa negoziatzera eta lan baldintzak gainerako langileekin berdintzera behartu nahi dituzte. 2008ko ekainetik bukatuta dagoen hitzarmena sinatu nahi dute eta orduz geroztik «geldirik dagoela» adierazi dute.

Grebara deitu duten sindikatuek emandako datuen arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako jangeletako langileen %85ek egin dute bat lanuztearekin. Araban langileen %70ek egin du greba; Gipuzkoan %90ek eta Bizkaian ere %90ek.

Langileak «beraien eskubideak azkeneraino defendatzeko» prest daudela azpimarratu dute.

Gutxienez betebeharreko zerbitzuak «gehiagizkoak»

Eusko Jaurilaritzak ezarritako gutxieneko zerbitzuak gehiagizkoak direla salatu dute grebaren antolatzailuek. Alde batetik, 2 eta 3 urteko haurren begiraleen %80ak gutxieneko zerbitzuak betetzeko lanera joan behar izan zuen. Eta bestetik, jangelako eta sukaldeko langileen %10ek ere bai.

Jaurilaritzak jangeletako zerbitzua «ezinbestekoa» dela argudiatu du eta sindikatuek, «gehiagizko» gutxieneko zerbitzuak ezarri dituztela kritikatu dute. Era berean, zerbitzu hori ematen duten langileen baldintzak erabakitzerakoan «ezinbestekotasun» hori ez dela kontuan hartzen azaldu dute.

Jada sektore hau ere serio hartzea «beharrezkoa» dela diote sindikatuek.



«Euskarari Erasorik ez!»

VILLABONA » Atzorako, Euskal Herrian Euskaraz erakundeak, Nazio Mailako Mobilizazio Eguna deitu zuen. *Euskarari erasorik ez! Euskaraz bizitzeko Egunkaria libre!* lelopean, Egunkaria auzia salatuz eta euska-

razko hedabideak erabili eta defendatzeko aldarrikapena egin zuten. Mobilizazio honekin bat eginez, Villabonako Mintzola eraikinaren aurrean elkartu ziren herritarrak. N. LATABURU



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Irura.** Udalak bilera egingo du gaur, hilak 27, Festa batzordeko partaide guzietan. Batzarrak 19:00etan hasiko da udaletxeko Batzarraldi Aretoan. Kaldereroen eta urteko kultur ekitaldien inguruan hitz egingo da bertan.

■ **Tolosa.** Datorren otsailaren 20rako Egunkari batzordeak bul-tzatutako *Egunkaria eguna* antolatzeko eta lana banatzeko bilera egingo dute bihar Lizardi elkartearen 20:00etan.

■ **Zizurkil.** Elizpe jubilatuen elkarteen ez ohizko batzarra izango da bihar 17:30ean. Bertan zuzendaritza berrituko dute eta ekonomia kontuak eztabaidatuko dituzte, besteren artean.

Tailerra

■ **Villabona.** Jesusen Bihotza ikas-tolaren Kultur Astearen baitan ikusmen gurasoei zuzendutako osasunerako tailerra izango da bihar 17:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga J. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
■ **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea, 7. 112.

TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Zahar berri.
09:00. Muka-Muka.
09:30. Tolosaldean Gaur.
10:00. Kafe t' erdi.
10:30. On ein!
11:00. Planik bai.
11:30. Tolosaldean Gaur.
12:00. Kultur zulo.
12:30. Wazemank.
13:15. Klipak.
13:30. Tolosaldean Gaur.
14:00. Kafe t' erdi.
14:30. On ein!
15:00. Planik bai.
15:30. Tolosaldean Gaur.
16:00. Kultur zulo.
16:30. Wazemank.
17:15. Klipak.
17:30. Tolosaldean Gaur.
18:00. Gipuzkoa kultura.
18:30. EH Lau Haizetara.
19:00. 16 mm.
19:30. Tolosaldean Gaur.
20:00. Kultur zulo.

(*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan eta iritzien erantzukizunik.

800 lagundik gora bildu ziren Txolarreren Bertso Jaialdian

Komunikabideak » Irratiak eskerrak eman dizkie bertaratutakoei eta baita Amaia Agirre bertsolariari ere.



Punta-puntako bertsolariek eskaini zuten saioa Leidorren. HITZA

ERREDAKZIOA

Txolarre Irratiko arduradunak oso pozik daude pasa den larunbatean antolatu zuten Bertso Jaialdiak izan zen erantzunarekin. 800 lagundik gora bildu ziren Tolosa-ko Leidorren eta beraz, «Txolarre Irratiko lan taldeak eskerrak eman nahi ditu antolatutako bertso jaialdiak jaso zuen erantzunagatik».

Amaia Agirre bertsolaria izan zen gai-jartzailea eta Txolarrek «berziki eskertu nahi du bilabonatarren ahalegina saio honen antolakuntzan». Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Sustrai Colina eta Beñat Gaztelumendi izan ziren bertsolariak Leidorren.

Irratiko arduradunek, hala ere, barkamena eskatu dute: «saioa zuzenean ikusi nahi izan zuten askok


ezin izan zutelako Leidorre sarrerak, bertako leihatilan salgai jarri zituen 150 sarrerak airean agortu zirelako». «Hala eta guztiz ere, saioa zuzenean jarraitu ezin izan zutenek badute bigarren aukera bat www.txolarre.org webgunean. Dagoeneko entzungai dira larunbateko jaialdiko bertso guztiak», gaineratu dute.

Txolarre Irratiak 10 urte beteko ditu abenduan eta urtemuga ospatzeko lehenengo ekitaldia izan zen joan den larunbateko bertso saioa.

Gehiago ere etorriko direla argitu dute.

Horiek horrela, Txolarre Irratiak «bihotz-bihotzez» eskertu nahi du larunbatean jaso zuen elkartasuna. «Urteotan bidezidorrean bidelagun izan direnak eta larunbatean Leidorren batu zirenak, elkarrekin sendotuko baitute eskualdeko euskarazko irratia», argitu dute. «Bidezidorra erabiliz egiten da. Erreza da, bertatik pasa eta hitza hartzea besterik ez du zue! Mila esker!», gaineratu dute.

A Agurrak



Zorionak!
Aimar Artola Otegi (Abaltzisketa). Gaur 7 urte. Zorionak etxeko bihurriarentzat.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	